

---

## IX. EUSKAL HERRIKO FRISOI TXAPELKETA

(2017.11.27)

Aurtengoan ere Euskal Herriko Frisoi Txapelketa antolatu zen Tolosako Ferialekuan.

IX. Euskal Herriko Frisoi Txapelketa antolatu dutenak oso balorazio positiboa egiten dute. Alde batetik, lehiatu ziren animaliak genetika handikoak ziren, eta bestetik, esne sektorean lana egiten dugunon topagune bilakatu zen.

Jende ugari bildu ginen Tolosako Feria Lekuan eta giroa ezin hobea izan zen. Goi mailako ganadua ikusteko aukera egon zen goizean zehar eta baita sektorean lana egiten duten enpresa desberdnen stand-ak.

Maila handiko animaliak lehiatu ziren eta Nafarroako KATTABURU ustialekuko KATTABURU DELTA IPARRALDE behia izan zen behien txapeldunen txapelduna.

Sariak ematen Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Zuzendaria, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Land Garapeneko eta Nekazaritzako Zuzendaria, Tolosako Alkatea eta Aberekinako Kudeatzailea egon ziren. Ikus sari banaketa

Eguna borobiltzeko biga bat zozketatu zen, (Gipuzkoako Larrola baserrira joan zen) eta bazkari bat antolatu zen babesle, laguntzaile, ganaduzale eta antolatzaileentzako.

